

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

GIZARTE POLITIKEN SAILA

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2026ko martxoaren 6an hartutako erabakiaren laburpena: 2026an informazioa, sentsibilizazioa, gizarte-prebentzioa eta -sustapena, ekintza solidarioen sustapena eta boluntarioria xede duten jarduerak eta ekintzetarako dirulaguntza-deialdia

BDNS(Identif.): 895381.

Dirulaguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Dirulaguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/895381>).

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren ildotik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean kontsulta daiteke <http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>.

Lehena. Erakunde onuradunak

Deialdian elkarte, fundazio eta entitateek parte hartu ahalko dute, baldin eta honelako ekintzak egitea esanbidez jasota badaukate beren estatutuetakoko xedeetan: gizarte-prebentzioari eta -sustapenari loturiko ekintzak, edo desabantaila sozialeko egoeran dauden pertsonen elkartzuna adierazteko eta laguntzeko ekimen zuzenak egitea xede dutenak. Orobat eskuratu ahal izango dute onuradun izaera pertsona fisiko edo juridikoen elkarte publiko edo pribatuak, ondasun komunitateak, edo beste edozein ekonomia unitate edo ondare bereizirik, nortasun juridiko propiorik izan gabe ere, dirulaguntza ematea dakarten proiektu edo jarduerak elkarrekin garatu eta bideratzeko gai badira.

Dirulaguntza eskatzen duten pertsonen edo entitateen Vitoria-Gasteizko udalerrian izan behar dute helbidea, eskatzaileak udalaz gaindikoko entitateak diren kasuetan izan ezik; kasu horietan, dirulaguntzaren xede diren ekimenak Vitoria-Gasteizko udalerrian egin behar dira eta udalerriko biztanleei egon behar dute zuzenduta, betiere 4. oinarrian zehaztutako kontzeptuetara egokituta. Horretaz gain, pertsona juridikoen Euskal Autonomia Erkidegoko Elkartearen Erregistro Orokorrean, edo Euskal Autonomia Erkidegoan dagokien Erregistro Publikoan, izena emanda egon behar dute, eta datuak eguneratuta eduki.

Bigarrena. Xedea

Informazioa, sentsibilizazioa, gizarte-prebentzioa eta -sustapena, ekintza solidarioen sustapena eta boluntarioria xede duten eta 2026an gasteiztarrei zuzentzen zaizkien jarduerak eta ekintzak, Gizarte Politiken Sailaren eskumenekoak badira eta beste udal sail baten berariazko dirulaguntza-deialdi baten xede ez badira.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2026ko martxoaren 6an hartutako erabakiaren bidez onetsi ziren, eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdi honen ildotik ematen diren laguntzak Gizarte Politiken Sailaren 2026ko ekitaldiko aurrekontuko 11.11.2301.480.45 partidan jasotako aurrekontu-kredituaren kontura joango dira; gehienez 125.000,00 euro baliatu ahal izango dira horretarako.

Bosgarrena. Aurkezteko epea eta modua

Eskabideak aurkezteko epea 20 egun naturalekoa izango da, oinarri hauei dagokien deialdiari buruzko laburpena ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Azken eguna larunbata edo jaieguna egokituz gero, hurrengo lehen egun baliodunera arte luzatuko da epea.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko martxoaren 6a

Gizarte Politiken Saileko Administrazio Zerbitzuko burua
IÑIGO JIMÉNEZ PEREDA